


Astekaria



elgoi

PELLO ARRIETA SORAIZ

**Elgoibarko
ondarearen
historiagilea**



IRAKASLE

ELKARTEA

ZEZENBIDE

San Frantzisko 43 • ☎ 74 27 20 • ELGOIBAR



auto-eskola

*luzena ematean
%10eko beherapena
Gazte Txartelarekin*



IBAI

KLUBA



JUDO

TAEKWONDOA

WING-TSUN

ESCRIMA

AIKIDOA *(Berria)*



AEROBIC-a

(2 edo 3 ordu - Ordategi zabala)

GIMNASIA ERRITMIKOA

(2 egun astean)

MANTENU GIMNASIA

(2 edo 3 ordu astean)

MUSKULAZIOA

URRIKO kanpaina BEREZIA

Matrikula dohainik

Familiantzako kuota bereziak

Deskontu garrantzitsuak

Kuotak ordaintzeko aukera desberdinak

Kirol desberdinetarako prestaketa fisiko espezializatua

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA

Santa Ana, 46 - ELGOIBAR

Tel. 74 07 93

Zatoz, astebetean dohainik egin dezakezu aproba!!

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:
Elgoibarko Izarra.
LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.
ZUZENDARIA:
Ainhoa Lodoso.
ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:
Andres Alberdi.

KAZETARIAK:
Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA:
Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:
Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:
Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:
Irati Agirreazaldegia, Xabier
Ansola, Nekane Aranburu,
Pello Arrieta, Juan Mari
Elustondo, Ina Garagarza,
Ane Goikoetxea, Amaia
Gorostiza, Juanito
Gorostiza, Maite Iriondo,
Edu Iriondo, Alberto
Iriondo, KOKOE, Imanol
Larrañaga, Javi León, Juan
Mari Mendizabal, Milagros
Oiarzabal, Benantzio
Otaegi, Aitor Zabaleta,
Julen Zabaleta, Deñe
Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:
Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.800 ale

LEGE GORDAILUA:
SS-1.038/92


ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.



kutxa fundazioa
fundación kutxa

ZENBAT BURU



HAINBAT ABURU

Ohitura kontuak

Lehen matxista samarra zan jaixa. Gizonezkuen jaixa zan, emakumiak kalia gora eta behera ibiltzen zian baina oso gitxik disfrutatzen zeben gizonezkuen modura”.

San Bartolome jaien bezperan aste-kari honetan bi elgoibartarrek esandakoa da. Orain dala urte batzuk holakuak omen ziren jaiak emakumeentzat, bai hemen eta seguruenik baita beste leku askotan ere.

Denboraren joan-etorriak, ostera, zeharo baztertuta laga du lehen normaltzat hartzen zana. Ohiturari jarraitu ezke-ro orain ere gizonezkoek bakarrik eukiko leukete jaietaz benetan disfrutatzeiko aukeria.

Baina ohiturak ez dira zorionez aldaezinak, ezta derrigorrez onak ere. Usadio zaharren izenean gauza asko sakralizatzen dira, ikutu ezinezko egin, nahiz eta sarritan tradizioek zentzu eta oinarri sendorik ez izan. Danok dakigu, ordea, zelako zaila izaten dan ohiturak dudatan jartzea. Hori egin ezkerro jatorrasuna gal daiteke edo bestela hereje bihurtu.

Honen adibide garbia gertatu da orain dala gitxi Euskal Herrian, Honda-


ribiko Alardean. Betidanik gizonezkoek bakarrik hartu dabe parte desfilean. Hori da ohitura. Aurten, ordea, emakume talde bat prestatu da ekitaldirako. Horretara joan direnean, uniformedunen irain eta kolpeak jaso dituzte.

Ikusitakoa ez dala alperrikakoa izango uste dut. Seguru nago emakume talde honi esker urte batzuk barru Alardean ez dabela gizonezkoek bakarrik parte hartuko. Bidea zabalduko dabe, eta orain ohituraren kontrakoa ikusten dana, gero gauza normala izango da. Duela 25 urte ile luzea eramaten hasi ziren mutilek galantak entzungo zituzten. Haiei esker, gaur egun inor ez da harritzen belarriak tapatzerainoko ilea daukan mutila ikustean. Gaurko intsumisoengatik bihar ez da soldadutzarik egongo. Horrela funtzionatzen du munduak. Bide berriak zabaltea ez da askotan lan erraza izaten, batez ere horretan jarduten dutenentzat. Bidea zabalik gelditzen da, ostera, atzetik datozenentzat.

Ohiturak aldatzen dituenari esker, gaur egun ez da derrigorrez gizonezkoa izan behar eskopeta eraman edo tanborra jotzeko. Ez Elgoibarren, ezta Hondarribian ere.

Aitor Zabaleta

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Plaza Haundian dauden arkupeak (Udaletxearen parean daudenak) zikin-zikinak daude, armiarma sarek beteta. Nori dagokio hau garbitzea? Alkateak esan digunez Udalarri lurra edo zolua garbitzea tokatzen zaio. Zutabeak eta bestelakoak garbitzea etxeko jabeei dagokie.



KEXAK

- Emakume batek deitu digu **Udalaren Manifestua** etxeetako portaletan jartzea gaizki iruditu zaiola esateko. Horretarako leku publikoak eta hobeak badaudela adierazi digu.

- Mendaroko neska talde batek honako kexa bidali du: "Kilometroak-eko triptikoa agertzen den mapan **ez da Mendaro azaltzen**. Lotsagarria iruditzen zaigu kolaborazioa mendarotarrei eskatzea eta gero hain erraz gutaz ahaztea".



TXALOK

Ikastolako bi ikasle etorri dira 8. mailako txalotzeko. Benetan lan polita egiten ari omen dira **Ikastolako hormak marrazten**.

ESKUTITZAK

Ni ez noa, ni ez nixe

Bada, bai, denbora boladatxo bat, haizetxar bat dudala barruak astintzen. Behar bada, harakinarekin hitz batzuk izan beharko nituzke, zeren maiz hartzen dudan erbia katua ez ote den susmoa daukat. Akaso zer jaten dudan jakinda... batek daki.

Zerk sor diezadake, bestela, zoritxarreko egoera hau?

Duela urte asko ELGOIBARTARREK proiektu batean jarri zituzten esperantza guztiak, esperantza euskalduna, bai, Ikastola. Guztiok ezagutzen dugu istorioa gutxi gora-behera. Lan eta neke handiko enpresa izan zen arren, proiektuak proiektu izateari utzi eta erreala bihurtu zen. Ikastola han zegoen, erreminta bazuten, beraz, ekin ziezaietela lanari: euskara suspertu eta zabaldu. Ekonomikoki hori posible egiteko era bakarra zegoen, diru sarrera pribatuak, kuota bidez eta abar.

Gaur egun joerak berdin dirau, nahiz eta gauzak aldatu Ikastolak hor jarraitzen du eta pribatu gainera.

Non dira guraso haien ametsak?

Bizi izan zuten erdi klandestinitate hura alde batera utzi eta egunen batean, herri honetako edozein seme-alabak euskaraz ikasteko eskubidea izateko konpromezua zena, errealtate bihurtzea.

Erabakia hartu da.

Pribatu izaten jarraitzen du baina oraingotan LABELarekin, ez dakit nongo federazioaren bedeinkapenez eta gainera domina eta guzti, zeren aurtengoan, KILOMETROAK 96 kondekorazioaz apaindu dute.

Hau ohorea, pentsa zenbat jende hurbilduko den egun horretan gure EUSKAL FESTA-ra. Noski, horrek dakarren guztiarekin: planning-a, azpiegitura, bolondresak, diru laguntzak... Beno, dirulaguntza boluntarioak eta dirulaguntza inboluntarioak. Lehenengoak honetan datza, zuk nahi duzun diru kopurua

ematen duzu. Nik inboluntario deituko nuena honako hau da: taberna edo tipo horretako negozio bat baduzu lana errazten dizute, beraiek hiru aukera eskaintzen dizkizue. Zuk bat aukeratu eta koloretako pegatina edo izartxo bat ematen dizue ordaindu duzunaren arabera, tabernan edo dendan jar dezazun. Zuk eta zure ingurukoek ikus dezaten zeinen bihotz onekoa zaren.

Beraz, dena prest egongo delakoan urriaren 6an eta dena ondo aterako denaren ilusioaz, ea ba, gutxi barru berriro ere Elgoibarrera datorren Kilometroak edo beste edozein Euskal Festa eta hurrengo horretan, nire laguna den Herri Eskolako Mikelek Goenkaleko aktoreak ikusterik dituen, nahiz eta Ikastolakoa ez izan, bestela hor nonbait eskatuko ditugu Power Rangerrak.

Beharbada utzi egingo diot idazteari eta harakinarengana noa, ea berak zein azalpen ematen didan, baina argi daukadana zera da, berak moztu duela beti haragia.

Halere, beti egin naiteke barazkijale.

Bixente Irusta

(Ikastolako ikasle ohia)

P.D.: Eskerrak eman nahi dizkiet euskararen alde lanean aritu zirenei eta gaur egun aritzen diren guztiei.


164. zenbakiko kexari erantzunez:

96-09-13ko BARRENen agertutako kexa dela-eta, errazena kritikatzeko dela esan nahi dut, baina zertarako balio du besterik gabe kritika egiteak? Irakurle horren iritziz, 96ko jaiak kaskarrak izan dira. Hori horrela izanik, zergatik ez zituen bere garaian jaietarako ideiak proposatu kultura zerbitzuan? Jaiak antolatatu baino lehen, Kultura Batzordeak bi bileratarako deia luzatu zien elgoibartarrei eta bilera horietan herritar orok bere proposamena egiteko aukera du. Beraz, datorren urteko bilerara etortzeko gonbidapena luzatzen diot irakurle horri.

Blanca Salegi

Kultur Teknikaria

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratu San Bartolome Ikastolako guraso izandako batek laga digu. Erretratu orain dela 25 urte inguru ateratakoda. Argazkian “Felix Aldazabal euskara lehiaketak”ean irabazle izan zirenak ikus ditzakegu. Euskara lehiaketa hauek Arraten izaten ziren urtero-urtero. Lehiaketa 14 urtetik beherako haurrentzako izaten zen, eta euskaraz nola berba egiten zuten eta idazten zuten neurtzen zen.

Ikus dezagun erretratuko sarituak zein diren:

Ezkerretik hasita: **Susana Peñalba, Hasier Etxeberria, Ana Etxeberria eta Gotzon Etxeberria.**



 **MoviStar**^{ek}

Hitza ematen dio Euskarari

 URRIAREN 6an
ELGOIBARREN

 BANATZAILEA
IBAIZU ☎ 943- 72 58 00
ZUMARRAGA

LAN ESKAINTZA

HISPANIA  **ZURICH**

Neska euskaldun bat behar da ZURICH-ROMERA aseguru etxean egun erdiz lan egiteko. Interesatuak hurbildu bulegora curriculum-arekin urriaren 7a baino lehen.

Artekale z/g behea- ELGOIBAR
Tel: 74 07 52 - 74 29 08

Ikasteak ez du adi nik

Orain 4 urte jarri zen martxan Elgoibarren HHI, Helduen Hezkuntza Iraunkorra. Denbora horretan 130 ikasle inguruk hartu izan du parte. Momentuz Eibarren eta Deban ere beste zentro bana daude eta laster Mutrikun ere jartzekotan dira. Guztira 10 irakasle daude, 6 Eibarren eta bina Elgoibar eta Deban. Horiek guztiak, 16 urtetik gorako ikasleak prestatzen dituzte graduatu eskolarra atera dezaten. Esperientzia oso ona izan da orain arte eta bada, EPAn izan eta gero, ikasketa unibertsitarioak hasi dituenik ere.

Astelehenean hasiko dute elgoibartarrek ikasturte berria Muguruzako eskola zaharretako egoitzan. Joan den astean izan zuten aurkezpena eta hemendik aurrera egunero bizpahiru orduz ikasgai ezberdinen inguruan duten ezagupena sakonduko dute.

HHI 16 urtetik gora



HHIko ikasle talde bat aurten Santanderrera egin duten irteera batean.

dutenei zuzendua dago. Arrazoi ezberdinak medio, bere garaian ikasteko aukerarik izan ez zutelako batzuk, ahalegin nahikoa egin ez izanagatik beste batzuk, irakurtzen eta idazten ez dakiteneatik hasi eta graduatua izanik lanbide heziketarako prestatu nahi duteneta-raino tarte handia dago. Horiek guztiak maila ezberdinetan banatuz, urtebeteko kurtsoa izaten dute HHIIn.

Bost maila

Ikasturteak ez dira urte osokoak, lau hilabeteakoak baizik. Halere, ordu kopuru jakin bat bete behar dute guztiak eta graduatua ateratzeko ezinbestekoa da urte oso bat egitea. Hasieran sarre-

ra froga bat egiten zaio bakoitzari, matematika eta hizkuntzaren inguruko ezagutzak neurtzeko. Emaitzen arabera, maila ezberdinak banatu eta bakoitza dagokionean sartzen da. Bost talde daude: analfabetoak, irakurtzen bai baina idazten oso ondo moldatzen ez direnak, zertifikatuak, aurre graduatua eta, azkenik, eskola graduatua. Azterketak HHIIn bertan egiten dituzte bai eta diploma banaketa ere. Aurten DBH hasteak ez du suposatzen aldaketarik HHIrentzat. Jose Ignacio Torres HHIko zuzendariak azaldu digunez, "lehen ikaslea atera arte DBHk ez du tokirik gure zentroan".


16 urtetik gora

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren adar bat gehiago da HHI, kasu honetan helduei zuzendutako ikasketak izanik. Irakasleak ere, logikoki, Hezkuntza Sailak kontratatzen ditu. Ikaslerik gazteenak 16 urte ditu eta izan da 80korik ere. Orain proiektu berri bati ekin nahi diote Garantia Sozialeko Programako ikasleekin elkarlanean aritzeko asmoz.

Batez beste 40 urteko pertsonak hurreratzen dira HHIra eta horietako gehienak emakumeak dira. Arrazoi ezberdinak izaten dituzte ikasleek matrikulatu eta kurtsoa aurrera ateratzeko. Batzuk euren ezagutzak

Iñaki Gil

HHIko IKASLE OHIA



zabaldu nahi dituztelako, beste asko graduatua ateratzera joaten dira, besterik gabe askotan derrigortuta, edozein lan egiteko hala eskatzen dietelako... Egunean bi orduko klaseak izaten dituzte, graduatuek hiru. Ikasgaiak beste edozein ikastetxetan bezalakoak dira: matematikak, kimika, hizkuntza, ingelesa, literatura... Ez daukate soinketarik, ez plastikarrik. Halere, Jose Ignaciok esan digunez, "metodologia da zertxobait aldatzen dena. Kontuan izan behar da pertsona helduak direla, gai orokorren inguruan bestelako ezagutza bat dutela.... Sexua lantzerakoan esaterako, esperientzia; politika komentatzen dugunean ere badute iritzirik, matematikako ariketak ez dira 12 urteko haur bati jartzen zaizkion berdinak..." Adinaren eraginez, beraz, bestelako klaseak izan ohi dira, debateak sarri egiten dira eta teorian lantzen dena praktikan jartzen saiatzen dira, egunean eguneko gertakizunak adibidetzat hartuz.

3.000 pta. urteko

Erabat dohainik da nahiz eta urteko 3.000 pta.ko kuota simboliko bat jartzen den. Libururik erosi beharrik ez dago; guztia ikastetxean banatzen diren fotokopien bidez egiten da; urtean pare bat irteera egiten dira

- Orain pare bat urte izan zinen HHIIn.

- Bai. Gaztetan egindako ikasketen zertifikatu bat neukan, eskola graduatuaren parekoa. Halere, erdi diploma zela iruditzen zitzaidan eta denbora libre piska bat neukanez, HHIIn hastea pentsatu nuen. Eibarrera joan nintzen eta urtebetean atera nuen graduatua.

- Gogorra egin zitzaizun?

- Beti kostatzen da zerbait, egunero klasera joan beharra, etxean tarea egin beharra, azterketak... Dena dela, asko irakurtzen dut eta semeari eskolako lanak egiten lagundu izan diot beti eta horrek nahi eta nahi ez gauzak errazten ditu. Gogorra izan arren, nota onak atera nituen eta azkenen harro sentitzen zara.

- Zein ikasgai gustatzen zitzaizun gutxienez?

- Kimika eta fisika. Eta gehien Literatura, aukera ematen duelako lanak garatzeko...

- Esperientzia ona?

- Dudarik gabe. Umetan eskolara joatea ez zitzaidan gustatzen. Gaur egun askoz konszienteagoa zara eta etekin handiagoa ateratzen diozu gauza orori. Hura izan zen hasiera eta gaur egun Zuzenbidea ikasten ari naiz UNEDen, Bergaran.

eta autobusa eskolak jartzen du, Eibarko Antzerki Topaketetera joateko aukerarik ere badute sarreraren erdia bakarrik ordainduz... Gainera, ohiko ikasgaiez gain, bestelako tailerrak ere badaude: sukaldaritza, areto dantzak... Berez derrigorrezkoak ez diren arren azkenengo urtean gutxienez bat egin beharra dute, gainontzekoak aukeran

dituzte. Horrez gain, liburutegi bat dute bertatik urtean zehar irakurri behar dituzten liburuak har ditzaketelarik, bideo aretoan pelikulak ikusi eta komentatzen dituzte, aurten zine-klub antzeko bat muntatu nahi dute... Ez da teoria hutsera mugatzen, hori baino askoz gauza zabalagoa da.

Jose Ignaciok adierazi digunez, "ikasleen arte-

- 2. maila.

- Bai, aurten hasiko dut 2. kurtsoa. HHI bukatu nuenean irakasle batek ikasten jarraitzea animatu ninduen, gainera urte hartan bertan graduatuarekin batera Osasun Teknikari diploma ere lortu nuen. Gero, 25 urtetik gorakoentzat unibertsitatean sartzeko azterketa egin eta aprobatu egin nuen. Iaz Zuzenbidean matrikulatu nintzen eta lau ikasgaitik hiru aprobatu nituen. Pozik nago.

- Merezki izan du, beraz.

- Batzuetan pentsatzen dut ea zertan nabilen horrenbeste ordu ikasten beste zerbait egiten lasai egon beharrean, agobiatuta sentitzen naiz azterketa garaian. Baina azkenean, aprobatu duzula ikustean, pena merezi duela konturatzen zara. Pertsonalki asko aberasten zaitu, jendearekin harremanak izateko aukera oso ona da eta semeentzat ere erdua bat.

an giro berezia sortzen da, adiskide asko egiten dira eta amaitu eta gero ere askok mantentzen dute harremana. Eibarren, hain zuzen, antzerki talde bat sortu zuten, erdi profesionalak direnak". Giroa, beraz, ezin hobea.

Astelehenean hasiko da ikasturte berria. Interesatua dagoenak Muguruzako eskolara joan besterik ez du.

Hitzegin ingelesez gaurtik aurrera. Orain egin dezakezu!

Multimethod®-ekin: pedagogia, teknologia eta giza-baliabiderik onenen konbinaketarekin, bakarra mundu osoan.

Multimethod®-en abantailak:

1. Ordu-tegi libre

Ikasleak klase eguna eta ordu-tegia aukera ditzake.

2. Klaseak galduta gabe

Denboraldi batean ikasleak huts egiten badu ere, ez du klaserik galtzen. Ikasgai guztiak zikloka errepikatzen baitira.

3. Ordu-mugarik gabe

Ikasturtean zehar ikaslea nahi beste klasetara

joan daiteke. Prezio gehigarrik gabe.

4. Giro berezia eta atsegina

Wall Street ikastegiaren ezaugarri nagusiak: instalazio modernoak, irakasle onak eta giro atsegina.

5. Arrakasta bermatzen dugu

Ez baduzu ingelesa ikasten dirua itzuliko dizugu. Wall Street Institutetek emaitzak idatziz bermatzen ditu.

*Deskontu bereziak
lehenengo
50 matrikultuentzat*



WALL STREET INSTITUTE
SCHOOL OF ENGLISH

Ingelesa Wall Street Institute-n ikasten da

Dohaineko deia: **902 399 399**

Julian Etxeberria 20 - EIBAR

Beste zentru batzuk Euskal Herrian: Bilbo, Gasteiz, Donostia eta Barakaldo.

Kilometroak 96 joko



Orri guztiak arreta handiz miatu eta Beder eta Sei non dauden asmatzen duzunean, beheko txartela bete eta datorren **astelehenero (hilak 30) eguerdia baino lehen** BARREnera ekarri. Asmatzen duzuen guztion artean Kilometroak 96ko dendan trukatu ahal izango diren 5 agiri zozketatuko dira astero-astero.

Adi egon eta atera lupa!!

Banoa, banixe,

Euskaraz, bai horixe!!



Aste honetako Kilometroen jokoaren irabazleak dira argazkikoak. Atzean, Blanca Badiola eta Ainhoa Uriarte. Aurrean, Urko Sanchez, Ainara De Pedro eta Estefani Picón. Zorionak!

BARREN astekariak eta Kilometroak 96k antolatutako lehiaketa.

Kilometroak 96 joko (Irailak 27)

Non ezkutatu ditugu Beder eta Sei? orrialdean.

Izen-abizenak: Tel.:

Sinatu al duzu Udalaren manifestua?



JUAN KRUZ URIGUENA

41 urte, bainuetxeko langilea

Ezagutzen dut baina ez dut sinatu. Ez nago ados Elgoibarko Udalak esaten duenarekin, horregatik erabaki dut ez sinatzea.



MARISOL ETXANIZ

52 urte, etxekoandrea

Ez dot irakurri baina entzun ein dot. Zuzenian eskatuko balie, sinatuko neuke. Holako gauzak gertatzian kontra nao. Ez dao deretxorikan.



ISELA SAN MARTIN

26 urte, delineantea

Bi aldiz edo. Horrelako gauzak sinatu egin behar dira Jendeak lagundu egin behar du, pasada bat da jaietan horrelako gauzak gertatzea.



JAVIER FERNANDEZ

19 urte, ikaslea

Portalian ikusi eta irakurri nuen baina ez dut sinatu. Nahiago dut politikan ez sartzea, batzuk eta besteak bazterrak nahasten ari dira.



SARA ETXEBERRIA

43 urte, etxekoandrea

Orain gutxi etorri naiz eta ez dut ezer entzun. Niri ez didate ezer galdetu ez eta eskatu ere. Halere, eskatuko balidate sinatuko nuke.



LORENZO RESCALVO

33 urte, administraria

Ez dut ezagutzen. Irakurri eta ondo pentsatuko nuke sinatu aurretik. Halere, elkarbitza baketsuaren aldeko guztiari babesa eman behar zaio.

**HERRI-
GAIN**
ERRETEGIA
San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

MIREN
arraindegia

Santa Ana
74 34 49
ELGOIBAR

XABIER
ILEAPAINDEGIA

*Eskatu
eguna eta ordua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

**Baserriko
haragietan
berezia**

Harategi Urdaitegia
San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

■ 169 ikasle hasi dira aurten IMHn

Asteazkenean ian zen IMHko ikasturte hasierako ekitaldia eta bertan IMHko zuzendaritza, irakasleagoa eta ikasleagoa izan ziren. 96/97 ikasturtean 169 ikaslek jasoko dute heziketa lau espezialitate ezberdin aukeran izango dituztelarik. Aurten Delineazio Industrialia, Fabrikazio Mekanikoa eta Sistema eta Makina Automatikoaren Mantenturako III. mailako moduluak ez ezik, goi mailako Mekanizazio bidezko Produktzioa ere emango da. Kurtso hauen gain, enpresa eta erakundeei zuzenduriko heziketa iraunkorreko ikastaroak emango dira.

■ Zazpikiren bilera

Larunbatean, hilak 28, Zazpiki Irratiak ohiko bilera egingo du. Goizeko 11,30etan hasiko den batzarrera agertzeko deia luzatu nahi dute irratiko arduradunek.

Perretxiko Lehiaketa haurrentzat



Karakate Elkarteak Deba bai-larako haurren perretxiko lehiaketa eta erakusketa antolatu du igandearako, hilak 29. XXII. edizioa da aurtengoa eta urtero bezala, 15 urtez azpikoek hartu ahal izango dute parte. Bi taldetan banatu beharko dira perretxikoak, pozoi-


tsuak eta jatekoak direnak zehaztuz. Epaimahaia Aranzadiko kideek osatuko dute eta erabakia ezagutzera eman ostean izango da sari banaketa. Izen-ematea, bihar, larunbata, iluntzeko 8ak baino lehen egin beharko da Karakate Mikologia Elkartean.

Larunbatero

<p><i>070ko 2-3-4-5 mailak</i></p> <p><i>DATAK</i></p> <p><i>Uria: 19-26</i></p> <p><i>Azaroa: 9-16-23-30</i></p> <p><i>Abendua: 14-21</i></p> <p><i>ORDUTEĜIA</i></p> <p><i>16:00-19:00</i></p> <p><i>PREZIOA: 2000 pta.</i></p> <p><i>Antolatzailea:</i></p> <p><i>Astruxiamaika B.T.</i></p>	<p style="text-align: center;"><i>ZER</i></p> <p><i>Inteerak, jolasak, sukaldaritza, txotxongiloak</i></p> <p><i>IZENA EMATEKO</i></p> <p><i>Elgoibarko Izarra K.E.</i></p> <p><i>Ubitarte 4, behea</i></p> <p><i>Tel. 74 16 26</i></p> <p><i>IZENA EMATEKO EPEA</i></p> <p><i>Urriaren 1etik 11ra</i></p> <p><i>Laguntzaileak:</i></p> <p><i>Elgoibarko Udala</i></p> <p><i>Eusko Jaurlaritza</i></p>
---	--

Astruxiamaika BEGIRALE TALDEA


Lutxi Arregik bete du kondena



Lutxi Arregi 27 urteko gazteak, epaileak jarritako zigorra oso-osorik bete duen lehen intsumitua da gure herrian. Lutxiri 2 urte, 4 hilabete eta egun bateko zigorra bota zioten, baina hirugarren graduari esker, 14 hilabetetan zehar Martutenera lo egitera bakarrik joan behar izan du. Urtarrilera arte, baldintzapeko askatasunean egongo da. Bestetik, asteazkenean Igor Isasmendi, hau ere 27 urtekoa, epaitu zuten Donostian. Honez gain, beste elgoibartar batek,

Kerman Morenok, datorren urriaren 9an izango du epaitegira joateko obligazioa intsumitu izateagatik. Epaiketak direla-eta, Antimiliek enkartelada egingo dute Plaza Handian zapatuan, hilak 28, eguerdiko lean. Era berean, domekan, Intsumitu Eguna joateko autobusa antolatu dute Antimiliek. Plazatik irtengo da goizeko 9,15etan.

Argazkian, Lutxi eta bere lagunak zigorraren amaiera ospatzeko egin zuten jain.



Ikastolako historiaren hainbat une eta Kilometroak 96ren bueltan aurten burutu diren ekintza guztiak azaltzen dituzten argazki bilduma ikusteko moduan dago Kultur Etxeko erakusgelan. Ikastolan izan diren irakasle eta ikasleen promozio ezberdinak agertzen dira, batek baino gehiagok bere burua argazkiren batean ezagutzeko aukera izango duelarik. Memoria astindu eta gaztaroko sasoiatar bueltan joateko aukera urriaren 6an amaituko da.

■ Epaimahairako zozketa

Epaimahairako zozketa dela-eta, legeak dioena betetze aldera, hauteskundeetako zerrendak Udaletxeko idazkaritzan eskura egongo dira hilaren 30era arte. Hauteskunde zerrendetan nor bere izena agertzen den ala ez ikusi nahi duten pertsonak goizeko 11etatik 1era bitartean egin ahal izango dute.

■ Zisneak Altzolan

Altzolako ahateak Udalak jarritakoak zirela esan bagenuen ere, oker geunden. Altzolatarrek esan digutenez, beraiek eta ez beste inork erositakoak dira. 60 mila pta. ordaindu zituzten 17 ahaterengatik eta basatienek ihes egin ei dute. Orain beste proiektu bat dute eskuartean, zisneak erostea. Hauek 120.000 pta. balio omen dute eta dohainen bidez ordaintzeko asmo dute.

■ Bandaren kontzertua

Larunbatean, hilak 28, Udal Musika Bandak Plaza Haundiko azken kontzertua eskainiko du. Gaueko 22etan izango da eta joko dituzten piezak honako hauek: "Evocación", "Jurassic Park", "Marcha Eslava", "The pink panter" eta "El barberillo de lavapiés". Bandaren hurrengo kontzertua Herriko Antzokian izango da.

■ Eskubaloiko jokalariaiek selekzioetan

Elgoibarko Eskubaloi Taldeko kadeetako lau jokalaria, Kepa Mendikute, Josu Perea, Unai Arrieta eta Ander Goikoetxea Euskadiko selekziozko kide izateko aukeratu dituzte. Aurreselektzio faserako hautatu dituzte, hau da, beste jokalariai batzuekin batera kontzentraturako dira eta hortik, Euskadiko selekzioa aukeratu dute. Amaia Jauregi ere Euskadiko aurreselektzioan izango da bai eta Leticia Astray ere. Azken hau Euskadiko talderako ezezki, Espainiako selekziozko ere hautatu dute.

Pello Arrieta Soraiz:

“Oroimen historikoa lantzea beharrezkoa da”

Elgoibarren jaio zen duela 46 urte eta bertan bizi da egun ere. Filosofia eta Letretako ikasketak egin zituen, Geografia eta Historiako espezialitatean hain zuzen ere. Irakaskuntzan jardun du ikasketak bukatu zituenetik, eta gaur egun ere Historia eta Arteko klaseak ematen ditu katedradun modura Elgoibarko Herri

Institutuan. Hauek dira bere lanbide izateaz gain bere afizio ere, kirolarekin eta irakurketarekin batera daukan denbora libre apurra betetzen dutelarik. Aste honetan aurkeztu berri duen “Elgoibarko ondare historikoa: arkitektura zibila” liburuari buruz hitzegiteko ekarri dugu gure artera.

- Zein da liburuaren edukina?


- Gure arbasoengandik jasotako arkitektura, historia eta artearen arrastoak jasotzen dira, arkitektura zibilean oinarrituz. Hau da, Moruko herrixka, Elgoibar sortu zeneko oinplanoa, plazak, eraikuntza publikoak, dorretxeak, etxeak, Altzola auzunea, iturriak, zubiak, frontoia eta arkua. Edukin nagusiaz gain, Juan San Martinen hitzaurrea du eta bukaeran, arte hiztegia.

- Noiztik diharduzu liburu hau egiten?

- Lan honi duela bi urte heldu nion, BARREN-erako kolaborazio bat egitea proposatu zidatenean. Artxiboko lana eginez, Elgoibarrek zituen ondare historiko zein artistikoetan arreta jartzen hasi nintzen.

- Izan al duzu arazorik lana burutzeko orduan?

- Diru laguntza lortzea ez da batere erraza izan. Hasieran aurrezki kutxa batek datorren urtean argitaratzeko aukera eskaini zidan, baina nire asmoa aurten ateratzea zen. Alde batetik Elgoibarren 650 urteurrena ospatzeko eta bestetik, kilometroak direla eta liburuak herritik kanpo izan dezakeen oihartzunagatik.



“Elgoibarko bezalako plaza barrokorik ez dago Euskal Herrian”

- Zergatik dauka herri bateko historiak hainbeste garrantzia?

- Gizakiok ez gara une jakin batekoak, beste batzuen ondorioa gara eta gure atzetik ere beste batzuk etorriko dira, hau da, katea bat osatzen dugu. Katea honen iragana jakitea beharrezkoa da, orainaren oinarria baita. Era berean geroa proiektatzeko beharrezkoa zaigu.

- Elgoibarko zein txoko gomendatuko zeniguke?

- Arte aldetik, daukagun plaza barrokoa bikaina

da. Euskal Herrian plaza barrokoak badauden arren, ez dut uste hain ondo eratu daudenik. Altzola oso esanguratsua izan zen eta San Antolin ere oso gune industrial inportantea, inguruan zeuden burniolak medio. Dena den, nik gusturen aztertu dudako txokoa Apraiz izan da, 300 urte pasa ondoren bere burniolaren arrastoak ikusi ahal izateaz gain, bertakoek horrenbeste gauza kontatzea oso interesgarria iruditu zait.

- Aurkituko zenuen kontu

bitxirik Elgoibarko txokotan...

- Sorpresa ugari hartu ditut, batipat jendearekin hitzeginez. Apraiz baserriko maiorazgoak kontatu zidan urik ez zegoenean burniola ezin zela martxan jarri, beraz, bertako langileek une horiek boloetan jokatzeke aprobetxatzen zituztela. Behin zelai batean goldatzen ari zirela bolatokia izan zitekeen ohol bat aurkitu zuten. Honela lortu zuten amamaren esana egiaztatzea. Jendeak gauza hauek gogoratzen ditu eta oroimenean izateaz gain kontatu ere egiten ditu.

- Aurrerako beste proiekturik?

- Bai; egia esan, hurrengo liburua martxan daukat eta bertan Elgoibarko arte erlijiosoa lantzeko asmoa dut. Eta hirugarren liburu batean baserriak aztertuko ditut.

- Besterik?

- Gustatuko litzaidake garbi lagatzea, liburuan egile bakar bat agertzen den arren, laguntzaile ugari izan ditudala. Alde batetik laguntza ekonomikoa eta bestetik giza laguntza. Beraz, guztiak eskertu nahi ditut eskaini didaten laguntzagatik.

IRATI AGIRREAZALDEGI

kili**BARRREN**

Mendaroko gehigarria

Irailaren 27a

32. zkia.



1

Hilabete honetako argazkia **Nuria Salegik** lagatakoa da. Bertan ikus daitekeen bezala, monjen eskolaren kanpoko aldean ateratako argazkia da, 1960. urtean.

Hona hemen erretratuan agertzen direnak: 1. ilaran ezkerretik hasita: **Ramoni Iturria, Tere Larrañaga, M. Luisa Urain, M. Tere Lazarobaster, Mila Garate, Bene Larrañaga, M. Angeles Goyar-**

zun, M.Carmen Loiola eta M. Jose Arriola.

2. ilaran: **Agustin Urbieto, M. Angeles Salegi, M. Luisa Salegi, M. Angeles Olazabal, Arantxa, M. Asun Olazabal, Gloria Larrañaga, Mercedes Esteban, Rosi Urain, Carmen Larrañaga eta Pablo Agorria.**

3. ilaran: **Ignacio Arriola, Ramon Carrascosa (†), Joaquin Longarte, Blanca Giga, M. Carmen Ansola, Inmaculada Hernandez, Nuria Salegi, Paulino Zabaleta eta Pedro Miguel Jurado.**



*Uztailaren 20an, 56 urte zituela hil zen
JOSE ANTONIO COBO PORTILLAren sendiak
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



Ikasturte berriarekin.. Elgoibarrera

Iritsi da jadanik eskolara joateko ordua. Baina aste honetan Mendaroko haur guztiak ez dira ikastola berean bildu. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren (DBH) ezarpenarkin askok eta askok Elgoibarrera joan behar izan dute ikastera.



2 B i urte pasatu dira Mendaroko Herri Eskola zabaldu zenetik. Eskola hau egin baino lehen Mendaroko haurrek herriko toki ezberdinetan jasotzen zituzten klaseak. Baina azkenik, 1994an, Udalak, irakasleek eta gurasoek herriko eskolaren atea irekitzea lortu zuten, 11 urtez helburu horren atzetik ibili eta gero.

Iazko ikasturtean erreforma martxan jarri ahala, Mendaroko haurrak Elgoibarrera joan behar zuten zurrumurrua zabaldu zen. Horren aurrean guraso, irakasle eta

Udalak ahalegin guztiak egin zituzten haurrak Mendaron gelditzeko. Baina ahalegin hauek hutsalak izan dira haur eskasiagatik. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren (DBH) ezarpenarekin aurtengo ikasturtean 12 urtetik gorako ikasleek Elgoibarrera joan behar izan dute.

Ikasleen egoera ikusirik, gurasoak elkartu egin ziren eta bileren ostean bi arduradun aukeratu zituzten: Nuria Salegi eta M. Asun Loiola. Beraiek esan digutenez, hasiera batean bazkalorduko tarte hori antolatzeko bilerak egin zituzten. "Guraso batzuk nahiago zuten

beraien seme-alabak etxera bazkaltzera etortzia eta beste batzuk, aldiz, Elgoibarren gelditzearen aldekoak ziren. Honen aurrean bozketa bat egitia pentsatu gendun eta bozketa honetan, haurrak etxera etortzia erabaki zan".

Autobusean joan-etorria

M. Asunen esanetan erabaki horren aurrean autobusen antolamenduaz arduratzeari ekin zioten. "Elgoibarren elkartu ginan beste arduradunekin eta erabaki gendun autobusa Mendaron, Altzolan, San Antolinen eta Elgoibarren geldituko

Zer suposatzen du zuretzat Elgoibarrera ikastera joateak?

AITOR BASURTO 12 urte, ikaslea

Etxera etorri biharrak atzera-aurrera ibiltzia suposatzen du eta denbora asko galtzen da. Nik nahia-go det Mendaron egotia eta gainera ez deu aukerarik izan i k a s t o l a berriaz gozatzeko.






zela. Baina bazkalorduan mendarotarrak bakarrik dira etxera etortzen diazenak”.

Datorren urtean, berriz, derrigorrezkoa izango dute bertan bazkalitzen gelditzea, jangela bukatua egongo baita. Jatorduetan begirale bat izango dute eta tarte horretan etxeko lanak edo kirola egin nahi badute ikastetxeko gela nagusiak irekita izango dituzte.

Etorkizunera begira
Kontuan izan behar da Mendaroko haurrentzat Elgoibarrera joatea ez dela arazo bat; bi kurtso hauen



galerak herriko ikastetxeko haurren gutxitzea suposatuko duela baizik. Ez da ahaztu behar Mendaro herri gaztea dela eta ez dela sekula eskola

girorik egon. Gaur egungo egoera ikusita herritarrok amestu dugun giro hori ez da sekula sortuko?.

3

OIHANA ASTORKIA

12 urte, ikaslea

Nahiago det Elgoibarrera joatia, lagun berriak egiteko. Bidaian denbora asko galtzen den arren nahiago det Elgoibarraren komedorian bazkalitzen gelditzia, horrenbeste buelta eman gabe.



PALI BADILLO

41 urte, etxekoandrea


Ni gustura nauan nere semea herrian ikasten zegoelako baina jakinda hurrengo urtean berdin-berdin joan behar duela, ez diot hainbeste garrantzia ematen Elgoibarrera joateari.



JOSE REVERT

41 urte, langilea

Nahiago dut nere alabak Mendaron ikastea, erosoagoa delako eta gainera ikastola berria izanik, herrian hobeto egongo dela uste dut.



Jubilatuentzako bidaia

“Lagun Betikoak” Elkarteak, bere ekintzekin jarraituz, bidaia bat antolatu du datorren asteazkenerako, urriak 2. Irteera Lodosara izango da eta nahi duten jubilatuz guztiek herria ezagutzearaz gain, pikilo piperrak nola kontserbatzen dituzten ikusteko aukera izango dute bertako fabrika batean. Irteera goizeko 8etan izango da, estazio geltokitik eta prezioa, berriz, pertsonako 3.000 pta, bazkaria barne.

Ekain II aurreproiektuaren erakusketa

Ekain II proiektuaren helburua Deba Beheko turismo, ekonomia, kultura eta gizarte garapena da. Ekain kobazuloa 1969. urtean aurkitu zenetik itxita dago jendearentzat. Kobazuloak magdalenien garaiko (15.000-12.000 k.a.) margo garrantzitsuenetarikoak ditu Europa mailan. Jendeak margo hauez goza dezan, Astigarribia inguruan erreproduzio bat egin nahi da. Orain arte egindako lanen erakusketa egongo da Mendaroko Kultur Etxean urriaren 12-13 eta 19-20an, larunbategiaren arratsaldeko 5etatik 7etara eta igandegian eguerdiko 12,30ak eta 2,30ak bitartean. Bertan, proiektuaren maketa, panel informatiboak eta diaporamak izango dira ikusgai. Diaporama emanaldia arratsaldeko 6etan izango da larunbategiaren eta eguerdiko 1,30etan igandean.

Aitor Etxeberriaren pintura erakusketa Eibarren

Urriaren 18tik 28ra bitartean Aitor Etxeberria mendarotarrak bere margoak erakutsiko ditu Eibarko Arrate Kultur Elkartearen. Erakusketaren ordutegiari dagokionean, astegunetan arratsaldeko 7etatik 9etara izango da eta asteburuetan eguerdiko 12,30etatik 2,30etara.



LEIRE ARZUAGA

Mendarotarrak Txiskolan

Argazkian Elena Zubiaurre, Oihana Tarragual eta Leire Iriondo agertzen dira. Mendarotar hauek ETB1eko Txiskola programan hartu dute parte. Elena, Oihana eta Leirek sagar taldea osatu zuten eta marrubi taldeko galdakaoarren aurrean nagusitu ziren. Hiru neska hauek Txiskolan txistek kontatzen ikusi eta barrez lehertu nahi duenak urriaren 7an, astelehena, izango du aukera gaueko 10ak aldera.



Andra Mari jaietako zozketa

Mendaroko Andra Mari jaietako batzordeak errifa batzuk atera zituen jaiak aurrera eraman ahal izateko. Zozketa abuztuaren 16an egin zen. Zenbaki saritua Pilar Esnaolak zuen. Argazkian Jose Aldazabal Juaristi, Batzordeko arduraduna ikus dezakegu Pilarri irabazitako saria ematen: astebete Tenerifen bi lagunentzat.

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Oihana Tarragual eta Elena Zubiaurre.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

Marisabel Unanue

“Ibai-ondo”
jatetxekoa



- **Zein ibairen ondoan bizi nahi zenuke?** ▶ Ibai garbi baten ondoan, arrainez betetakoa...
- **Zein da bizitzako platerik gustukoena?**
▶ Jatea da plazerrik handiena.
- **Jatea, beraz, plazerra da beharra baino.** ▶ Bai, dudarik gabe.
- **Zer botako zenuke kumunetik behera?** ▶ Inbidia.
- **Zure eguneroko bizitzatik egin menu bat.** ▶ Lana, lana eta lana.
- **Zerk jartzen dio gatza zure bizitzari?**
▶ Jai egunak izan eta ondo pasatzea.
- **Bizi izan duzun une goxo bat?** ▶ Alabaren jaiotza.
- **Konkistatzeko afaririk egokiena?** ▶ Mariskoa eta angulak.
- **Eta postrerik afrodisiakoena?** ▶ Edozein tarta.
- **Zein da ahotik kendu ezin duzun kapritxoa?**
▶ Txokolatea eta karamelo garratzak.
- **Beharrezkoa ez den plazerrik?** ▶ Erretzea.
- **Zuk erretzen duzu?** ▶ Ez.
- **Sekula egin al duzu dietarik?** ▶ Ez.
- **Janaria prestatu ala jaa?** ▶ Jan.
- **Zein saltsatan ibiltzen zara gustura?**
▶ Ez naiz saltsazalea, nere bizitza lana eta familia dira.
- **Eta ba al dago dastatu nahi zenukeen saltsarik?**
▶ Gehiago bidaiatu nahi nuke eta mundua ezagutu.
- **Egingo al zinateke barazkijale?** ▶ Ezta pentsatu ere.
- **Begietatik sartzen ez zaizuna?**
▶ Barazkiak eta fruta, osasuntsua den edozer.
- **Zein “bollito” jango zenuke?** ▶ Robert De Niro.
- **Zerk erlaxatzen zaitu?** ▶ Eguzkitan lasai etzanda egoteak.
- **Aukeran zer izan nahi zenuke?**
▶ Lehen pelukera izan nintzen baina oraingo lanarekin gustura nago.

San Migeleko jaiak

DOINUA:

Aizak mutil mainontzi

Uda bukatu denean
orain udazkenean
San Migel jaiak
iritsi dira
itxura onean
auzotar asko lanean
dabiltz itxaropenean
alaitasunak jarraitu dezan
San Migel gainean (Berriz)

Dantzaldi eta bertsoak
beti dira erosoak
idi dema ta bola jokoak
ohitura goxoak
ume eta gurasoak
gazteriaren pausoak
esku zabalik hartuko ditu
San Migel auzoak (Berriz).



ZIARDA

B
E
R
R
I
Z
O
T
A
N

AZALEA

Estetika eta edergintza

MARI KARMEN BERECIARTUA

Estetizista · Bisajista · Masajista

Trenbide kalea, 3, behea (estazio parean) ELGOIBAR - Tel. 74 03 10

Neguari aurre egiozu!

- GORPUTZ eta AURPEGIRAKO tratamenduetan
merkatuko azken berrikuntzak zure esku.

- DEPILAZIO elektrikoa eta argizariarekin.

UDA BERRI
ELGOIBAR

Joan den ostiralean Deba Beheko 17 emakumek Orientatzaile eta Insertatzaile diploma jaso zuten Udal Pleno aretoan. Emakume hauen lana, langabezian daudenei beharrezko orientazioa ematea da, lana topatzen laguntzea. Udaletxean izan ziren Gillermo Garate Elgoibarko alkate eta DEBEGESAko lehendakari dena; Itziar Fernandez, Emakundeko idazkaria; Desiderio Vicente, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Hezkuntza saileko zuzendaria eta Juan Angel Balbas, Debegesako gerentea.

Lehenengo aldia da Deba Behean era honetako ikastaro bat egiten dena. Berau, NOW izeneko europear programaren barruan dago eta Europar Ondasun Sozialak, Eusko Jaurlaritzak eta Deba Beheko udalek finantziatu dute.

Emakumeei bakarrik zuzendutako ikastaro honetara 58 pertsona aurkeztu ziren eta horien artetik 17 aukeratu zituzten. Guztiak Giza Zientzietan lizentziatu edo diploma-
tuak dira eta 25 eta 40 urte bitartean dituzte. Gillermo Garateren hitzetan, “gaur egun gure eskualdean emakumeen langabezia tasa gizonezkoena baino %14 altuagoa da. Horregatik, emakumeen papera bultzatu behar da prozesu ekonomikoan”.

Langabetuei lana topatzen laguntzea
Eusko Jaurlaritzako Lan eta



17 emakume hauek orientatzaile ikastaroa egin dute.

Hezkuntza saileko zuzendaria, Desiderio Vicentek, emakumeek lan mundura zabaltzerakoan dituzten arazoengatik jardun zuen, “hezkuntza minimoa eman behar zaie denei gero lan aukera berdina izan ditzaten”. Itziar Fernandezek Emakunderen izenean hitzegin zuen eta ikastaroa burutu duten neskek aurrerantzean izango duten lanean animatu zituen, “nahiz eta demostratua dagoen emakumeok kualifikazio hobea dugula bai ikasketa mailan bai profesionalki, oraindik ere guztiok sexuen arabera heziketaren ondorioak daramatzagu barnean. Zuoi dagokizue zailena, besteei bidea irekitzea. Baina ondo formatuak zaude eta ziur lortuko duzuela”. Era

berean, udaletxeetan programa bereziak sor-tzea eskatu zuen, “beharren arabera azterketa egin eta lan programa integralak bultzatuz. Ikastaro hau eredu izan da”.

100 orduko praktikak

Ikastaroak 450 orduko iraupena izan du, hasieran aurrikusia zegoena baino 37 gehiago, ikasle eta irakasleek hala eskatu zutelako. Juan Angel Balbas Debegesako gerentea azaldu zuenez, “argi ikusi da ikasleak interesatuak egon direla asistentzia %100ekoa izan baita”. Elgoibar, Eibar, Ermua, Soraluze, Deba eta Mutrikuko emakumeek hartu dute parte. Orain, horietariko batzuk lanean hasiko dira eta besteek 100 orduko praktikak egingo dituzte.

Astelehen goizean egindako euri jasan ondorioz, Santa Klarako parke berriko horma bat erori egin zen. Dirudenez, hormen lodiera eskasa izan daiteke arrazoietariko bat. Zona horretan zeuden etxe guztiak bota egin ziren baina haien horma bat mantendu egin zen terraza bitxi hau eraikitze-

ko asmoz. Teknikoen esanetan, horma uste baino ahulegia zen eta ez zuen behar bezala eutsi eurien eraginez sortu zen urpoltsa. Momentuz eraisketaren ondakinak garbitzeari ekin diote eta aurrera begira zer egingo den oraindik zehaztu ez den arren, litekeena da bertan gune berderen bat jartzea.



Altolako iturria (II)

- Altolako bainuetxeko sendagile-zuzendariak fede handia zuten Mendaroko plazako, Altolabeko eta, ziur aski, nahiz eta honen testigantzarik ez izan, "Txoriko" horma azpitik irteten den uraren gainean. Eta gaixoei metal-ur hauek edateko gomendatzen zieten.
- Iturria nabarmendu nahirik monumentu txiki bezain apala eraiki zen. Kaletik iturrira iristeko kararrizko lau harmaila jaitsi behar dira eta alboetan, hormaren kontra, launa aulkitxo daude eta esparrua itxidura txiki eta arrunt batez inguratua dago.
- Aurreko aldean, laukizuzen forma duen eta behetik kurbatua den basamentu baten gainean marmol ilunezko

gurutze bat dago. Basamentuaren goiko aldean eta itur-hodia inguratuz, metalezko apaindura bat du. Apaindura beheko aldean gai geometrikoz landua dago eta goian obalo bat du, barruan emakume klasiko baten burua erakusten duelarik.

- Iturriak metalezko plater zulodun batera jaurtitzen du etengabe ur gorrixka eta handik ibaira zuzentzen da.
- Gurutzearen oinean bi data ageri dira, 1643 (eraiki zen eguna) eta 1910, berritu zeneko data.

PELLO ARRIETA



Julio Perez Cortes (1886-1960)



- 1886ko abenduaren 28an jaio zen Badajozeko Villanueva de la Serenako herrian.
- Bi anaia izan ziren familian. Eskolan ibili ondoren musika ikasketak egi-teari ekin zion Badajozeko Liceoan eta geroago Kontserbatorioan.
- Maria Pajuelo Díaz-ekin ezkondu eta 9 seme-alabako familia sortu zuten.
- Oposizio bidez, lehenengo klarinete plaza lortu zuen eta geroago zuzendariorde izan zen Badajozeko Banda Militarrean.
- Hazaña politikoak atera zuen lege bati esker, eszedentzia hartu eta Guareñako zuzendaria izan zen.
- 1942an etorri zen Elgoibarrera familia osoarekin eta gure herriko Bandaren zuzendaria izan zen hainbat urtetan.
- Bi Habanera idatzi zituen eta Club Deportivoarentzat himno ofiziala egin zuen.
- Musikariaren bizitza ikertzeaz aparte, xakea gustatzen zitzaion.
- Gizon alaia eta bromazalea zen.
- 1960ko maiatzaren 10ean hil zen Badajozen.

JUANITO GOROSTIZA

INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behea. ☎ 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

OIERKI IGOGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
☎ (943) 10 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 10 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

KIROL

EMAITZAK

Futbola

Elgoibar 1 - Eibartarrak 1 (2. jubenilak)
Haundi 4 - Aloña Mendi 0
 Miren Bihotza 3 - Elgoibar 3 (1. erreg.)
 Antiguoko 0 - Elgoibar 4 (Jubenilak)
 Añorga 2 - Elgoibar 2 (Kadeteak)

Pilota

GIPUZKOAKO TXAPELKETA
 (Eibarko Astelena frontoian)
 Jubenilak:
 Gandiaga/Andonegi (Eibar) 22 -
 Leon/Balzola (Elgoibar) 1
 ARRASATEKO PILOTA
 TXAPELKETA
 Seniorrak:
 Jauregi/Korta (Arrasate) 22 -
 Ansola/Alzibar (Elgoibar) 16

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 28
9,00 Eibar - Amara Berri (Kadeteak)
10,45 Elgoibar - Bergara (Kadeteak)
12,30 Elgoibar - Arrasate (1. jubenilak)
15,00 Pedrusko - Zarautz (2. erreg.)
16,45 Elgoibar - Aretxabaleta (1. erreg.)
18,30 Elgoibar - Sto. Tomas Lizoea (Jub.)
Igandea, 29
9,30 Gazteak - Zumaiako (2. jubenilak)
11,30 Eibartarrak - Urki A (2. jub.)
15,00 Gazteak - Beti Sutan (2. erreg.)
16,45 Elgoibar - Usurbil (Neskak)
18,30 Eibartarrak - Bergara (2. erreg.)

Pilota, Ikastolako frontoian

Ostirala, 27
 Seniorrak:
22,00 Ansola/Alzibar (Elgoibar) - Lazkao



Patxi Aranberri:

"Bi entrenatzaile nazional gaoz klubian"

■ **Eskubaloiko entrenatzaile Nazional titulua eskuratu berri duzu.** - Bai, ointxe euki dot aukeria eta ateratzeko aprobetxau dot.


■ **Nazional titulua baino lehen zer dago?** - Lehenengo eskubaloiko monitore, Gipuzkoa mailakua. Gero entrenatzaile territoriala; horrekin Euskadiko ekipuak entrenatu leikez eta azkenik, Estatukua.

■ **Horrek esan nahi du entrenatzaile ona zarela?** - Ez, ez. Horrek demostratzen dau titulua bakarrik atera dotela, ekipuak entrenatzeko. Entrenatzaile onak kantxan demostrau bihar dau.

■ **Gogorra al da titulua ateratzea?** - Bi urte izaten diaz. Sei ikasgai urte bakoitzian. Urte bakoitzian bi ikasgai izaten diaz gogorrenak. Normalian hiru aste klase izaten dia Madrilen, intentsiboa. Ni uztailian eon nitzan Madrilen.

■ **Lana ere utzi behar izan zenuen?** - Julixuan izan zanez examinia ahal dabanak oporrak aprobetxatzen ditxu baina niklana utzi bihar izan naban. Ointxe nakan aukeria eta lenengo urtia einda nakanez, ba, bigarrena ein eta kitto.

■ **Zenbat urte eskubaloian?** - Jolasten 20 urte baino gehixo. Eta entrenatzen hau bosgarren urtia da. Aur-



ten jubenilak entrenatzen ditxut eta momentuz baita nagusixak ere. Jolasten hasten geranian ez dakitx nola moldatuko geran ze nik ere ekipuan jokatzan dot.

■ **Zer moduzkoa da jubenilen taldea?** - Jokalari gitxi daoz, 12 daude, justu-justu. Ekipua ona da.

■ **Eta zure burua entrenatzaile moduan nola ikusten duzu?** - Nork bere burua nolakua dan esatia zaila da. Ez dot uste gogorra naizenik, mala letxe piska bat bai.

■ **Ba al dago entrenatzea gustatuko litzazukeen talde bat?** - Momentuan ez. Piska bat ikasteko nahi naban titulua eukitzia. Bat edo batek diar eitxen badia, ikusiko det.

■ **Elgoibarren bi titulu dagoeneko.** - Nitaz aparte, Joxean Hidalgo ere entrenatzaile nazionala da. Eta beste bik ere titulu territoriala dake.

Hortan behintzat, klubian ondo gaoz.

■ **Aurtengorako asmoak?** - Bai nesketan bai mutiletan Euskal Ligara igotzia. Aukerak egon badaoz baina gutaz aparte beste talde batzuk ere badaoz, hortaz...

• **Adina: 30**
 • **Jokalari ala entrenatzaile: Jolastia gehixo gustatzen jata**
 • **Lesiorik txarrena? Meniskoa eta ligamentu gurutzatua hautsita**



LABBANAGA autoeskola

Nora begira zaude? Zatoz lehenbailehen karneta ateratzera!!

Gazte txartelarekin %10eko BEHERAPENA izena ematean

Santa Ana II - ☎ 74 10 11 - ELGOIBAR



96-97 DENBORALDIA

C.D. ELGOIBAR

Liga hasi ez duten futbol taldeek asteburuan jokatuko dituzte lehenengo partiduak. Aitzaki horren bueltan eta duela pare bat aste Haundiko jokalarien berri eman genuenez, oraingoan, klubeko gainontzeko sei taldeen berri emango dugu orri honetan; nortzuk diren entrenatzaileak eta zenbat jokolari diren.



1. ERREGIONALA. Entrenatzailea: Txomin Santos. 22 jokalarik osatzen dute taldea. Oraingoz hiru partidu jokatuta dituzte, bi berdindu eta bat galdu.



NESKAK. Entrenatzaileak: Alberto Hernández eta Roberto García. 22 jokolari. Igandean jokatuko dute lehen partidua Mintxetan.



OHOREZKO JUBENILAK. Entrenatzailea: Pedro Santiago. Jokatuta dituzten bi partiduak irabazi dituzte.



2. JUBENILAK. Entrenatzailea: Angel Silva. Jokatutako bi partiduak berdinketaz amaitu ziren. Jubenilen kategorian 36 jokolari dira guztira.



KADETEAK. Entrenatzaileak: Jon Gurutz Gorostiza eta Jose Manuel Fernández Carvallo. 22 fitxatu daude. Partidu bat jokatuta dute eta 2na berdindu zuten.



INFANTILAK. Entrenatzailea: Jose Luis Egaña. 22 jokolari dira. Asteburuan jokatuko dute lehen partidua eibartarren kontra.

ELGOIBARKO IZARRA

BIENTZAKO OHARRAK:

1. Lanak **ELGOIBARKO IZARRA** Kultur Elkartera, Ubitarte 4, bidali behar dira.
2. Kartazalean '**ELGOIBARKO IZARRA IDAZ LEHIAKETAK**' jartzeaz gain, '**Prosa Lehiaketa**' edo '**Etxegiña Bertso-Paper Lehiaketa**'n parte hartzeko den zehaztu beharko da. Hau ezezik, zein mailatan parte hartzen den ere jarri beharko da (**A,B edo C**). Baldintza hauek betetzen ez dituzten lanak baztertuak izango dira automatikoki.
3. Sari banaketa eta irabazleen berri ematea, San Anton jaietan egingo den jaialdi berezi batean izango dira.

1996

XI. PROSA LEHIAKETA

Oinarriak:

- 1.- Elgoibartarrek ezezik Elgoibarren ikasten ari den edonork ere parte har dezake.
- 2.- Hiru **maila** bereiziko dira:
A.- DBHko 1. eta 2. mailak (12-14 urte).
B.- BBBko 1. eta 2. mailak (15-16 urte).
C.- BBko 1. eta 2. mailak (17-18 urte).
- 3.- Idazlanen **luzera**:
A.- 3-6 orrialde bitartean.
B.- 4-8 orrialde bitartean.
C.- 5-10 orrialde bitartean.
- 4.- **Gaia**: librea izango da.
- 5.- **Idazteknika**: prosaz izan beharko da.
- 6.- Idazlanak hiruna aiez aurkeztuko dira (hiru kopia), izenburua edo **giltz-lemma** batekin eta egilearen inolako ezaugarririk gabe.
Kartazal barruan eta sobre itxi batean egilearen izen deiturak, helbidea eta hautatutako giltz-lemma jarriko dira.
- 7.- **Sariak**:
A.- 1. Txapela eta 15.000 pta.
2. 10.000 pta.
B.- 1. Txapela eta 25.000 pta.
2. 15.000 pta.
C.- 1. Txapela eta 35.000 pta.
2. 20.000 pta.
- 8.- Lanak entregatzeko **epea**: abenduak 8.
- 9.- Epaimahaia **ELGOIBARKO IZARRAK** izendatuko du eta honen erabakia apelaezina izango da.

XVI. 'ETXEGIÑA' BERTSO-PAPER LEHIAKETA

Oinarriak:

- 1.- Elgoibartarrek ezezik Elgoibarren ikasten ari den edonork ere parte har dezake.
- 2.- Hiru **maila** bereiziko dira:
A.- LHko 5. eta 6. mailak (10-11 urte)
B.- DBHko 1. eta 2. mailak (12-14 urte)
C.- Ertainak (14-20 urte)
- 3.- Bertsoen **luzera**:
A.- 6 kopla edo 2 bertso.
B.- 8 kopla edo 3 bertso.
C.- 5 bertso.
- 4.- **Gaia**:
A eta B mailatan gai librean.
C maila: "**Gazte gera gazte eta ez gaude konforme**"
- 5.- Idazlanak hiruna aiez aurkeztuko dira (**hiru kopia**), izenburu edo **giltz-lemma** batekin eta egilearen inolako ezaugarririk gabe.
Kartazal barruan eta sobre itxi batean egilearen izen-deiturak, helbidea eta hautatutako giltz-lemma jarriko dira.
- 6.- **Sariak**:
A.- 1. Txapela eta 8.000 pta.
2. 4.000 pta.
B.- 1. Txapela eta 10.000 pta.
2. 6.000 pta.
C.- 1. Txapela eta 15.000 pta.
2. 12.000 pta.
- 7.- Lanak entregatzeko **epea**: abenduak 8.
- 8.- Epaimahaia **ELGOIBARKO IZARRAK** izendatuko du eta honen erabakia apelaezina izango da.

ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Elkartea

LAGUNTZAILEAK:
ELGOIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA





INA GARAGARZA

1846 eraiki zen bainuetxean ura ontziratzeko enpresa bat kokatzen da gaur egun.

Orain dela 150 urte sortu zen Altzolako bainuetxea

Altzolako bainuetxeak 150 urte betetzen ditu aurten. “Madrid txikia” gaitzizenez zen ezaguna, urte askoan madrildarren oporleku izan baitzen. 1846an eraiki ei zuen bainuetxea aberats elkar-te batek. Orduan lau aska eta piszi-na bat baino ez zituen. Hortik aurre-ra politiko, jauntxo eta aberts ugari hurreratzan zen Altzolara bainuak hartu eta oporrak pasatzera.

Bainuetxea sortu aurretik Elgoibarko medikuak, Francisco Planzón izenekoak, bazuen Altzolako uren berri. Antza denez, umeak ibaian bainua hartzen zuten neguan, eta toki batean ura epelagoa zego-ela konturatu ziren. 1846an Altzolako bainuetxea sortu zenean urari buruzko azterketak egin ziren eta hango ura edanda edo bainuak hartuta, giltzurruneko hondar eta harriak botarazten zituela demostratu

zen. Altzolara joaten ziren gaixoen mina desagertzeaz gain, digestio aparatuko funtzioak ere bere onera etortzen ziren. Bainuetxearen inguru-an hotel eta pentsio ugari eraiki ziren eta bisitari aberatsen joan-eto-riek gorakada handia eman zioten Altzolari. Bainuetxeak jangela dotoreak, 130 logela igogailuarekin, ur hotza eta beroa, dantza eta jokoe-tarako gelak, kapera eta zerbitzu ugari zituen. Trena 20 aldiz pasa-tzen zen egunean eta sei pentsio eta hotel txiki ei zeuden bertan.

Napoleon, Sagasta eta Maura

Hain ziren mundu osoan ezagunak Altzolako uraren onurak ezen pertsonaia historiko mordoska hurbildu izan diren Altzolara bainuak hartzera. Napoleon III.ak bere gorteko mediku bat bidali zuen Altzolara bertako urak aztertzera. Itxuraz, Frantziako enperadoreak Altzolara joateko asmoa omen zuen baina urte horretan Alemania eta Frantziaren arteko gerra piztu zen eta azkenean ez zuen Altzolara joate-rik izan. XIX. mende bukaerako beste bi poli-tiko, ordea, Sagasta liberala eta Maura kon-terbadorea, Altzolako bainuetxean izan ziren.

Bederen 1 taldearen “Eztei gaua” antzez-lana hilaren 4an

Udal Kultur Sailak berriz ekin dio hileroko antzerki emanaldiei. Urriaren lehen ostiralean, hilak 4, Bederen 1 taldearen “Eztei gaua” antzez-lana ikusi ahal izango da Herriko Antzokian. Garbi Losada-ren zuzendaritzapean hiru antzez-lek, Patxi Santamaria, Koldo Losada eta Jon Ezkurdiak, hiruek batera ezkon gau berezia ospatuko dute. Ospatu ez den ezkontza batean billar mahai baten inguru-an biltzen dira hiru gizonak. Etiketaz jantzita, billar partida jokatu dute. Maitasuna eta gorrotoa ageri-agerian geratzen dira partida horretan zehar. Jokoa aitzaki, egia eta gezurra edo erre-a-litatea eta fantasiaren arteko mugak gainditzen dituzte, joko arriskutsua jokatzan ari direlarik. Hiru ordu laurdenez luzatzen den antzelana euskara hutsean da. Bederen 1 antzetaldearen hamahi-rugarren lana da honakoa, iazko urrian estrainezkoz taularatu zena.

Bertso saioa eta idi-demak San Migelen

Gaur iluntzean, hilak 27, txafli-guak bota ondoren hasiko dira San Migeleko jaiak. Gaur gauean aparteko bertso saioa eskainiko dute Peñagarikano, Sorozabal, Mendiluze, Murua, Jon Sarasua eta Euzkitze bertsolariek. Parran-darako betarik ere ez da falta izango San Migel aldean, bertso-larien jardunaren ostean erromeria izango baita Eganen eskutik. Zapatuan, hilak 28, Haritz taldeak dantza ikuskizuna eskainiko du. Ondoren, erromeria egongo da eta jarraian bolo txapelketa. Igandeko meza eta bertsolarien goizeko jar-duna eta gero, arratsaldeko 5,30etan, idi demak egongo dira. Jaiak gauean amaituko dira txeko-rraren zozketarekin.

Aitor Mendez:

"Jatordu bakoitzian 300 pertsona eukitzen genitxun"

Aitor Mendezek aurten Sukaldaritzaren ikasketak amaitu ditu Irizar sukaldari ospetsuaren eskolan. 17 ure baino ez dituen elgoibartar gazte honek hasieratik zeukan oso garbi berak etorkizunean zer izan nahi zuen. Momentuz lan egiten du behintzat. Eta sukaldari horri da udan egintzen zuzendaria. Izan ere, bi urte dagozuk izan da, eta horren ondorioz Lau izarreko hotel batean sukaldari.

■ Zergatik sukaldaritzea?

- Gustatzen jatalako gauzak preparatzea, sukaldeko saltsetan ibiltzea.

■ Eta jatea?

- Baitxa, hori ere bai.

■ Sukaldari izateko teoriarik ikasi behar al da?

- Bai baina egia esan praktika asko dakagu. Kurso guztixan zihar praktikak eitzen ditxugu Donostiko jatetxietan.

■ Denetik ikasiko zenuen, ez?

- Bai, platerak preparatzen ikastiaz gain komedorian ere zelan ibili behar dan erakusten dizue, mahaixa zelan jarri, kubiertoak, zein aldetik zerbitxu behar jakon jendiarri...

■ Eta zer gustatzen zaizu zuri gehien?

- Pasteleria. Tartak eta pastelak preparatzea.

■ Uda berezia izan duzu aurten.

- Bai, bueno iaz ere egon nitzan praktikak eitzen, Leitzaan. Eta aurten Santanderrera jun naiz, Isla izeneko hotel berri batera.

■ Zein izan da zure lana?

- Ailegatzen zeranian sekzio bakoitzeko zuzendaria izaten zaitxu. Ni hotel bakoitzeko zuzendaria izaten zaitxu eta bakoitzeko zuzendaria izaten zaitxu. Ni hotel bakoitzeko zuzendaria izaten zaitxu eta bakoitzeko zuzendaria izaten zaitxu.

■ Zure etako hotela zen, ez?

- Bai, jendiak marisko asko gustatzen dute. Langosta marmiteko parrilladia... Kokotekoa gustatzen du mariskuakin.

■ Ordu egunero?

- Jatordu bakoitzeko 9etatik 4,30ak arte jaten dugu. Sukaldeko 6etatik gabeko jatordu bakoitzeko 13 ordu egunero, eta jatordu bakoitzeko 13 ordu egunero, eta jatordu bakoitzeko 13 ordu egunero, eta jatordu bakoitzeko 13 ordu egunero.

■ Gero ordainduko zizuten zer-bait.

- Bai, 180.000 pta. hileko, baina ez dau gehixegi konpensatzen kontuan hartuta zenbat ordu sartzen ditxuzun lanian. Jatordu bakoitzian 300 pertsona eukitzen genitxun! Askok erretzen zera.

■ Juergarik egiteko astirik?

- Bai. Gabian amaitzen genduan ixa egunero urtetzen ginan 3ak arte edo. Horrek ematen zion uda ikutua egunari ze bestela...

■ Oso ezberdina al da sukaldaritzaren toki batetik bestera?

- Oso, ez daka zerikusirik. Zuk gauzak modu batera itxen ikasi badozu ere, toki berri batera zoazen momentuan hango eria ikasi behar dozu, beti dao zeozer ikasteko.

■ Zuk zeuk sortu al duzu inoiz zer-bait?

- Ez, ondiok ez.

■ Eta zein asmo aurrerantzean?

- Kanpora jungo naiz lanera. Lan faltarik ez dao eta eskoliak topatzen dizu zuk nahi dozun tokian. Nik Euskal Herritik kanpora jun nahi dot, Andaluzia aldera edo isletara... Ez dakitx. Nahi izan ezkerro Londres edo Parisera ere jun zaitxezke...

■ Eta gero?

- Egunen batian nere jatetxia zabaltzea da nere asmua, Elgoibartik kanpo.

■ Gustuko sukaldaria?

- Irizar eta Subijana.

■ Sukaldaritzarik onena?

- Euskal Herrikua.

■ Eta txarrena?

- Japonesa.

■ Ama sukaldari ona al da?

- Bai eta hori batzuetan esaten diotela gauzak beste modu batera eitzeko baina ez dia kasorik eitzen.

Salerosketak

- ❖ Golg GTI autoa saltzen dut, SS-AS. Oso egoera onean. **☎ 17 44 33**
- ❖ **BIBOLIN BAT** saltzen dut oso egoera onean. **☎ 74 26 35** Manuela
- ❖ REM/IEEko lehen mailako **LIBURUAK** erosiko nituzke. **☎ 74 12 91**
- ❖ **BX-RE AUTOA** saltzen dut. Egoera onean. **☎ 74 08 85**
- ❖ **LOKAL BAT** saldu edo alokatzen dut Urasandi kaleko 7an. **☎ 74 18 94/27 78 08** (Angel)
- ❖ Auto bat daukat saltzeko. **TALBOT SOLARA**. Egoera eta prezio onean. **☎ 74 30 02** (gauze)
- ❖ **ILARAKO MONOPATINAK** saltzen ditut, lau erroberakoak. **☎ 74 20 95** Iban
- ❖ **AUTO TELEGDATUA** saltzen dut bateriarekin. Egoera onean. **☎ 74 22 75**
- ❖ **TRABESIAKO ESKIAK** saltzen ditut. Mendiko materiala ere bai: arnesak, sokak, katu hankak. Egoera eta prezio onean. **☎ 74 40 62** Agustin
- ❖ **LOGELA OSOA** daukat saltzeko. Baita sarrerarako takiloia ere. **☎ 74 24 57**
- ❖ **ABDOMINALAK** **LANTZEKO** "Boumerang" taula eta gomazko "Beuchat-Marlin" urpeko arrantza fusila ditut salgai. Berri-berriak. **☎ 74 36 36**
- ❖ **KANITXE** **TXAKURKUMEAK** salgai. **☎ 74 43 50** Nekane
- ❖ **MOBILETE** Coma Harvard motor beltza saltzen dut, berri-berria. 50.000 pta. **☎ 75 10 01** Jabi
- ❖ **SEAT IBIZA SS-AG** saltzen dut, oso egoera onean. Beti egon da garajeen. **☎ 74 10 59**

Partikularrak

- ❖ Bi neska gazte gara eta frantsesa irakatsiko digun norbait behar dugu. Oinarritzko maila. **☎ 74 15 69** (Miren)
- ❖ Hezkuntza Zientzietan lizentziatuak (Pedagogia) **OHO-EGB, DBH-ESO, REM** eta **LOGSE**ko klase partikularrak ematen ditu euskaraz eta gazte-laniaz. **☎ 74 39 24** (Maite)

Etxebizitzak

- ❖ Pisu bat alokatu nahi dut Elgoibarren. **☎ 45 35 59**
- ❖ Etxebizitza saltzen da San Bartolome kalean. Sukaldea, bi komun, bi logela eta egongela-logela ditu. Jantzita eta berritua. **☎ 74 04 99**
- ❖ Etxe bat saltzen da Santa Ana kalean. Etxe handia eta prezio onean. **☎ 74 10 53**
- ❖ Beste batzuekin bizi izateko **PISU BILA** nabil Mendaron edo Elgoibarren. **☎ 61 96 60** Ana
- ❖ **PISUA SALGAI** daukat **LEKEITION**. Handia eta itsasora begira. **☎ 74 32 48**
- ❖ Jantzitako pisua daukat alokatzeko P. Muguruzan. **☎ 74 04 75**

Garajeak

- ❖ Marradun garage bat alokatzen dut pista beltzean. **☎ 74 21 64**
- ❖ Garaje itxi bat salgai Arregitorren. **☎ 74 12 53** (Pilar)
- ❖ Garaje itxi bat saltzen dut Santa Anan. **☎ 74 21 21**
- ❖ Marradun garaje bat alokatzen da pista beltzean. **☎ 74 01 77**
- ❖ Garaje bat saltzen da King-Kongen. **☎ 76 17 95**

Agurrak

- ❖ Zorionak **Llanos Castrori** bere biloba Zairaren partetik hilaren 25an bere urtebetetzea izan zelako. Musu haundi bat!
- ❖ Aupa, **Iñaki!** Ongi-etorri Indiatik! Gogor portatu al jatzue Satopanth? Datorren urterako permisoa ekarriko huan ba! Hasi diapoak prestatzen! Mendiko lagunak.
- ❖ **Amama Rosario**, esan nahi dizugu zorionak eta urte askotarako eta oso ondo pasatzeko urriaren 1ean. Musu handi bat. Nerea eta Olatz.
- ❖ Zorionak **Asier Badiolari** igandean, hilak 29, 3 urte egiten dituelako. Guraso, arreba eta atxitxa eta amamaren partez.
- ❖ Zorionak **Zuhaitz-i** irailaren 27an urteak betetzen dituelako. Josu Idiakezen partez.

Lana

- ❖ Sukaldaria behar da jatetxe batean lan egiteko. Interesatuak Posta kutxa 48 zuzenbidera bidali sobreaken azalean "Sukaldari" erreferentzia zehaztuz.
- ❖ Marrazketa industrial eta die-driko partikularrak ematen ditut. **☎ 74 43 98** Iñaki
- ❖ Emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke. **☎ 74 04 75**
- ❖ Konfidantzako familia batek au-pair bat behar du Northamptonen (Ingalaterra) irailetik aurrera. **☎ 74 15 73**
- ❖ 17 urteko neska pertsona nagusiak zainduko lituzke. Egunez edo gauze. Etxeko lanak eta jatorduak ere egiten ditut. Esperientziarekin. **☎ 74 36 38**
- ❖ Austriako familia batek Au-pair bat behar du 9 hilabeterako. Aleman piska bat jakin beharko luke. **☎ 19 10 96** Edurne
- ❖ Adineko emakume bat zaindu eta harekin bizitzeko emakume bat behar dugu. Hobe euskalduna. **☎ 74 00 37**
- ❖ Emakume batek nagusiak zainduko lituzke. Esperientzia daukat. **☎ 75 62 18**
- ❖ Klinikako laguntzaile eta Gutxitu Psikikoen Hezitzaile tituluak dauzkat eta lan egingo nuke. **☎ 74 34 68**
- ❖ Neska euskaldunak urte guztian zehar gaixoak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Autoa dut. **☎ 75 61 79**
- ❖ Emakume bat naiz eta lan egingo nuke goizez adinekoak zainduz. Denda atentitzen esperientzia. **☎ 81 35 91** Leri

Bestelakoak

- ❖ Cocker Spaniel txakur zuri bat galdu da aste honetan. Lepoko gorria zeukan. Norbaitek ikusi edo aurkitu badu mesedez dei dezala 741681 zenbakira.
- ❖ **DBHko 1.** mailako neska talde batek joku eskolarretan aritzeko futbol, eskubaloi eta saskibaloian entrenatzeko pertsona bat behar du. **☎ 74 25 42** Ainhoa (Gauze 8,30-10)
- ❖ Andra-gizonetzako **LOGELA OSOA, OHE BAT** **ETA SARRERAKO TAKILOIA** behar ditu Caritasek. **☎ 74 10 09 / 74 12 57**

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak.....461111
 Txanda hartzeko.....743354
 Planning-a742950
 Alkoholiko Anonimoak..740385
 D.Y.A (anbulantzia) ..464622
 Gurutze Gorria.....743864
 Mendaroko Ospitalea756264
 Drogomenpekotasun Z..741008
 Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Tren.740442
 PESA (Eibar).....102131
 Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
 Udal Kiroi Patronatua744415
 Kultura Zerbitzua742158
 Mendaroko Udala756100
 Ongizate zerbitzua...743736
 Udaletxea741050
 Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
 Elgoibarko Izarra.....741626
 Kontsumo Bulegoa ...743088
 Liburutegia743525
 Musika Eskola742145
 Mintxeta744315
 Parrokia.....740842
 Polikiroldegia741361
 Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
 Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola.....74 21 41
 Herri Eskola74 08 79
 I.M.H.74 41 32
 Institutua74 02 67
 Ikastola74 44 41
 L.H.I.....74 44 80
 Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
 El Diario Vasco74 40 73
 El Mundo74 27 59
 El Correo Español...74 10 82
 Egin.....10 84 21
 Zazpiki irratia74 34 74

27 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“En busca de la ciudad perdida”

28 LARUNBATA

9,00 EHIZA TXIKIKO LEHIAKETA

✓ San Migelen

Antolatzailea: La Unión Elkarte

11,30 ZAZPIKIREN BILERA

✓ Zazpikiren lokalean

19,30-22,15 ZINEA

“En busca de la ciudad perdida”

22,00 BANDAREN KONTZERTUA

✓ Plaza Haundian

29 IGANDEA

10,00 XXI. PERRETXIKO LEHIAKETA

✓ Plaza Haundian

Antolatzailea: Karakate Elkarte

19,30-22,15 ZINEA

“En busca de la ciudad perdida”

30 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“En busca de la ciudad perdida”

1 ASTEARTEA

22,00 ZINEA

“En busca de la ciudad perdida”

4 OSTIRALA

22,30 ANTZERKIA

Antzezlan: Ezkon gaua

Taldea: Bederen Bat

San Migel bailarako JAIK

27, OSTIRALA

20,00: Jaien hasiera.

22,30: BERTSO JAIALDIA.

Bertsolariak: Peñagarikano, Sorozabal, Mendiluze, Murua, Jon Sarasua eta Euzkitze.

Ondoren, erromeria EGAN taldearekin.

28, LARUNBATA

22,30: Dantza jaialdia HARITZ taldearekin.

Ondoren, erromeria LUHARTZekin.

01,00: BOLO TXAPELKETA.

Sariak: 1- Sthil motozerra, 2- 12.000 pta., 3- 8.000 pta., 4- 4.000 pta., 5- 2.000 pta., 6- Ustekabea eta auzoko lehenengoarentzat, garaikurra.

29, IGANDEA, SAN MIGEL EGUNA

11,30: Meza nagusia.

Ondoren BERTSO eta TRIKITI saioa: Ziarda eta Mañukorta eta Balzola anaiak.

13,00: XIII. Pilota Txapelketaren azken partiduak.

17,30: IDI DEMAK: Soarte, Iriarte, Madarixako Ezkerra.

Sariak: 1- 125.000 pta. eta garaikurra, 2- 110.000 pta. eta garaikurra, 3- 100.000 pta. eta garaikurra.

22,00 Erromeria MUSUTRUK taldearekin.

24,00 Txekorraren zozketa.

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
28, larunbata:	Etxeberria	Zabaleta
29, igandea:	Etxeberria	Zabaleta
30, astelehena:	Ormazabal	Ormazabal
1, asteartea:	Ormazabal	Ormazabal
2, asteazkena:	Ormazabal	Ormazabal
3, osteguna:	Ormazabal	Ormazabal
4, ostirala:	Yudego	Yudego

OKINDEGIA:

29, igandea: ZABAleta

ZineA

“En busca de la ciudad perdida”

Zuzendaria: Jean-Claude Van Damme
Antzezleak: Jean-Claude Van Damme, Roger Moore, James Remar.




20. hamarkadan dago kokatua piraten istorio hau. Iheslari amerikar bat Tailandiako kontrabandisten itsasontzi batean dago bidaiatzen. Ontzia piraten esku erortzen da eta iheslaria esklabua bailitz saltzen dute. Arte martzialen txapelketa batean parte hartzeko asmotan Txinarantz bidaltzen dute. Bidean abentura ugari gertatuko dira.

AUTOBUSA PLAZATIK 9,15etan

INTSUMISIO EGUNA 96

N A F A R R O A



SUMISIOA

INTSUMISIOA EJERZITOEN GAINETIK
DESOBEDIENTZIA!

IRAILAK - 29

BERRIOZAR

LAU AREATAN BANATUTA,
BESTEAK BESTE, HONAKO
HAUEK IZANGO DITUZU:

- TXUPINAZOA
- HERRI KIROLAK
- BERTSOLARIAK
- 600 PERTSONENTZAKO
PAEILA MUNDIALA
- BERTSOLARIAK ETA
JOTEROAK
- MIKEL MARKEZ
- HAURRENTZAKO
GUNEA
- KUKUBILTZO
- IPUIN KONTALARIAK
- BAZTANGO DANTZARIAK
- ROCK KONTZERTUA:
MAL DE OJO
LOS MOROCHOS
BALERDI BALERDI

...

Promociones Inmobiliarias MENDARO



GOI MAILAKO KALITATEZKO
ETXEAK 12.000.000 pta.tik

- 2 eta 3 logela
- Berogailu indibiduala
- Marmola atarietan
- Gineako zurak
- Irogailua garajeraino
- Antena parabolikoa

LOKAL KOMERTZIALAK - GARAJEAK - TRASTELEKUAK

INFORMAZIOA: 13 35 13 (ZARAUTZ)

Tel. Faxa: (94) 491 23 19 ALGORTA

Tel: 74 42 83 (**ELGOIBAR**)



Conchi

Etxeko txikientzako beti politena

San Frantzisko, 19 - ☎ 74 15 32



AKANAK

Sasoiko oihaletan aukera zabala

Errosario, 8 - ☎ 74 35 95

GARATE

Kolorez beteriko udazkena

San Bartolome, 13 - ☎ 74 11 29

Udazkenean ere, estrena itzazu
lotarako erropak

San Frantzisko, 10 - ☎ 74 26 19

MUXI kirolak

Kirola egiteko moda berria

Antonio Arrillaga, 14 - ☎ 74 01 80

